# INFLAZIOA

# Inflazioa %3,3ra apaldu zen otsailean

## KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa




Otsaileko KPIak %3,3ko balioa hartu zuen, aurtengo urtarrilekoa baino bi hamarren txikiagoa. Hori horrela izanda, badirudi urtarrilean hasitako beheranzko joera txiki bat sendotzen ari dela. Moteltze horretan eragina izan zuen otsailean erregaien prezioa pixka bat jaisteak eta elektrizitatearen prezioak egonkortzeak. Bestalde, azpiko inflazioa %2,4ra jaitsi zen.

## KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa

| | 2023 | 2024 | 2025eko otsaila | Ekarpena |
|---|---|---|---|---|
| Inflazio osoa (%100) | 3,6 | 3,1 | 3,3 | 3,3 |
| Azpiko inflazioa (%84,8) | 6,2 | 3,2 | 2,4 | 2,0 |
| - Elikagai landuak (%14,8) | 12,5 | 4,6 | 2,2 | 0,3 |
| - Industria ondasunak (%20,2) | 4,7 | 1,2 | 1,2 | 0,2 |
| - Zerbitzuak (%49,8) | 4,3 | 3,5 | 3,0 | 1,5 |
| Hondar inflazioa (%15,2) | -6,4 | 2,6 | 8,1 | 1,3 |
| - Landu gabeko janariak (%6,4) | 7,3 | 4,0 | 5,5 | 0,4 |
| - Energia (%8,8) | -17,0 | 1,0 | 10,0 | 0,9 |

## AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa




## HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



## Elikagaien prezioa
Urte arteko aldakuntza tasa




## Zerbitzuen prezioa
Urte arteko aldakuntza tasa




Otsailean, elikagaiek beren prezioen igoera moteltzen jarraitu zuten, urte arteko %3,2 igo baitziren, urtarrileko urte arteko %3,3ko datuekin alderatuta. Egonkortzeko joera hori urrun dago 2024aren hasieran jaso ziren igoera nabarmenetatik. Etxebizitza da oraindik ere talderik inflazionistena, eta urte arteko %11,1eko igoera izan zuen otsailean. Elektrizitatearen prezioaren BEZaren igoerak eragin nabarmena izan du horretan. Era berean, jatetxe eta hotelen eta beste ondasun eta zerbitzu batzuen atalak %4,0ko urte arteko igoerekin jarraitzen dute, eta gainontzeko atal gehienak %2aren inguruko balioetan daude kokatuta. Gutxien igotzen diren taldeen artean, altzariak eta etxeko gaiak (%1,0) eta aisialdia eta kultura (%1,5) daude. Azkenik, garraioa %0,7 merkatu da 2024ko otsailarekin alderatuta.

## KPI talde nagusiak
Urte arteko aldakuntza tasa. 2025eko otsaila

| | Euskadi | Espainia | Eurogunea |
|---|---|---|---|
| **INDIZE OROKORRA** | **3,3** | **3,0** | **2,3** |
| Janariak eta alkoholik gabeko edariak | 3,2 | 2,2 | 2,2 |
| Edari alkoholdunak eta tabakoa | 3,0 | 3,0 | 4,6 |
| Jantziak eta oinetakoak | 2,3 | 0,1 | 0,1 |
| Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak | 11,1 | 9,8 | 2,7 |
| Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea | 1,0 | 0,5 | 0,1 |
| Osasuna | 2,1 | 1,9 | 3,4 |
| Garraioa | -0,7 | 0,3 | 1,0 |
| Komunikazioak | 2,0 | 2,0 | -3,2 |
| Aisia eta kultura | 1,5 | 1,4 | 2,3 |
| Hezkuntza | 2,4 | 2,5 | 4,0 |
| Jatetxeak eta hotelak | 4,0 | 4,1 | 4,0 |
| Bestelako ondasunak eta zerbitzuak | 4,0 | 3,6 | 4,2 |

Iturria: INE eta Eurostat.